

**Asuncion
Klinika**



**2024ko
Jarduera Memoria**




Pertsonen zerbitzura dagoen klinika

Asuncion Klinikari, osasun-arretarekin gure komunitatearen orainarekin eta etorkizunarekin dugun konpromiso gisa ulertzen dugu. 1967. urtetik ari gara Tolosaldeko eta Gipuzkoako herritarren osasuna

zaintzen, esperientzia, berrikuntza eta gertutasuna uztartuz. Guran konfiantza jartzen duen paziente bakoitza da gure hazkundera eta etengabeko hobekuntza bultzatzen dituen motorra.


2024ko asistentzia-datuak



Gure arreta-eskaintza

90 espezialista baino gehiago eta hogeiren bat espezialitate ditugu eskuragarri, eta horri esker prebentziotik eta diagnostikotik hasita tratamendura eta errekupeazio funtzionalera arteko **arreta integrala eskaintzen dugu**. Gure

taldea arlo guztietan oso **kualifikatutako profesionalak** osatzen dute, eta horri esker kasuan kasuko arreta pertsonalizatua eman dezakegu, jarraipen asistentziala eta etapa kliniko guztietan ongizate maila gorena bermatuz.



114 ohe

Ospitaleratzea



38 kontsulta-gela

Kanpoko kontsultak



**3 kontsulta
7 box**

Larrialdiak




5 Ebakuntza-gela

3 Kirurgia handi
1 Endoskopia
1 Cirugía Ambulatoria



**Azterketa klinikoak
Anatomia patologikoa**

Laborategia



**Erresonantzia magnetikoa
TAC
Ekografia**

Erradiologia



**3 Gimnasio
34 box**

Errehabilitazioa



Zerbitzu medikoak

Alergologia
Kardiologia
Hematologia
Barne-medikuntza
Familia-medikuntza
Pneumologia
Neurofisiologia



Zerbitzu kirurgikoak

Bizkarrezur kirurgia
Kirurgia orokorra eta digestiboa
Ginekologia
Neurokirurgia
Oftalmologia
Otorrinolaringologia
Traumatologia
Urologia



Zerbitzu zentralak

Azterketa klinikoak
Anestesia
Farmazia
Erradiodiagnostikoa
Errehabilitazioa
Larrialdiak



Unitate bereziak

Tarte ertainetako ospitaleratze-unitatea
Etxez etxeko ospitaleratze-unitatea

Gure zentro-sarea: Gipuzkoako bihotzean

Gure ospitalea, **erabat berritua**, eta gure zentro medikoen eta kontsulta-guneen sarea guztiek batera ahalbidetzen dute **Gipuzkoa osorako arreta integrala, irisgarria eta**

kalitatezkoa eskaintzea. Egitura honek osasun-erreferente sendo bihurtzen gaitu, gertutasuna, berrikuntza eta gure komunitatearekiko konpromisoa uztartzen dituen erakundea.



Asuncion Klinikak

Izaskungo bidea, 9, 20400, Tolosa
943 69 70 00

- Kirurgia-bloke osoa: 4 ebakuntza-gela, UCIM eta 24 orduko larrialdi-zerbitzua
- Kanpoko kontsultak, diagnostiko aurreratua eta laborategi propioak



Belate Ordizia Osasun

Rondilla, 56, 20400, Tolosa
943 69 88 08

- 15 kontsulta-gela
- Zainketa eta odol-ateratze gela
- Errehabilitazio gimnasio
- Erradiografia konbentzionala



Andoain Ordizia Osasun

Aita Larramendi, 16, 20140 Andoain
943 69 88 08

- 6 kontsulta-gela
- Zainketa eta odol-ateratze gela
- Errehabilitazio gimnasio
- Erradiografia konbentzionala



Ordizia Osasun Zentroa

Goierri Kalea, z/g, 20240 Ordizia
943 16 40 48

- 6 kontsulta-gela
- Zainketa eta odol-ateratze gela
- Errehabilitazio gimnasio
- Erradiografia konbentzionala



Donostiako kontsultak

Centro Médico Zurriola
Gran Vía, 3, 20002, Donostia
943 32 35 00

- Traumatologia, Bizkarrezurreko kirurgia eta oftalmologia

Clínica San Ignacio
Alcalde J. Elosegi, 43, 20013,
Donostia 943 287 300

- Medikuntza orokorreko kontsultak.

Balio sorkuntza

370 langiletik gorako lantaldea dugularik —horietatik %80 emakumeak—, Tolosaldeko enplegu-sorrerako lehen enpresa gara. Gure lurraldearekiko konpromisoa ez da soilik zenbakietan neurtzen: egonkortasuna, lan-ingurunearen

kalitatea eta tokiko talentua erakartzeko eta atxikitzeko etengabeko apustua ere badira gure nortasunaren parte. Gure inguruko komunitatearekin batera hazten gara, garapen ekonomiko eta sozialak partekatua izan behar duela sinetsita.

Gure plantilla eta haren bilakaera


2024ko plantilla: **372 pertsona**

Medikuntzako profesionalak: **85**

Erizain eta fisioterapeutak: **122**

Teknikari eta laguntzaileak: **84**

Ez-sanitarioak: **81**



♀♂ Berdintasunarekiko konpromisoa

%62

Zuzendaritza-tokietakoak emakumeak dira


%30

Zuzendaritza-postuetakoak emakumeak dira



Eragin ekonomikoa

2024ko fakturazioa: 28.063.140 €



Fakturazioa 7.021.372 eurotik (1994) 28.063.140 eurora (2024) igo da. Soldata eta ordainsarien alorrean, 1994an 4.578.060 euro

bideratzen ziren, eta 2024an 21.042.112 euro, hau da, **%400 inguruko igoera langileen aldeko baliabideetan.**

Gizarte ekarpena



2024an, fakturazioa 28 milioi eurotik gorakoa izan zen, eta horietatik **%75 soldata eta ordainsarietara bideratu ziren.** Urte berean, erakundeak 3,8 milioi euro ordaindu zituen Gizarte Se-

gurantzara eta *2,8 milioi euro IRPFren kontzeptuan. Horrez gain, **67.095 euro inbertitu ziren gure langileen prestakuntzan,** baliabide propioen, Fundae eta Lanbideren bidez.



Ospitale bat baino askoz gehiago: gizarte konpromisoa

Gizartearekiko dugun erantzukizuna osasun-arretatik harago doala ulertzen dugu. Kalitatezko arreta eskaintzeaz gain, aktiboki lan egiten dugu gure komunitatearen ongizatearen, ingurumenaren iraunkortasunaren eta gure inguruko garapen sozialaren alde.



Ingurumen iraunkortasuna

Euskadiko lehen ospitalea gara energia %100 berriztagarritz hornitzen dena.

%25

ospitaleak kontsumitzen duen elektrizitatearen laurdena guk geuk sortzen dugu.

EMAS ziurtagiri europarra dugu, ingurumen-kudeaketa aurreratua aitortza jasotzen duena. Estatu osoan hogeit hamar ospitale inguruk baino ez dute ziurtagiri hori.



Euskararekiko konpromisoa

Euskararen erabilera sustatzen dugu gure ingurune guztietan, horrela gertuko, errespetuzko eta irisgarriagoa den osasun-arreta eskainiz gure komunitateari.




Kirolaren aldeko apustua



Gipuzkoa Basketen zerbitzu mediko ofiziala gara, eta gainera, honako hauek babesten ditugu:


- Tolosa CF
- Club Alpino Uzturre
- Tolosaldea UltraTrail Erronka
- Torneo Haur Rugby

Halaber, kirol-federazio askoren osasun-arretarako erreferentziako zentroa gara, besteak beste futbol, saskibaloia eta txirrindularitzako federazioetan.



Osasunaren dibulgazioa

Osasuna Kalean bezalako ekimenen bidez, gure espezialistek herritarrentzat eskaintzen dituzten hitzaldi-ziklo dibulgatiboen bidez, osasunaren eza-gutza sustatzen dugu.




Elkarlana eta elkartasuna

Kellesensa bezalako nazioarteko lankidetzeta proiektu sanitario eta hezkuntza-proiektuetan parte hartzen eta laguntzen dugu, klinikari lotutako pertsonen bultzatutako GKE bat, eta Gujerat-eko jesuiten misioekin ere elkarlanean aritzen gara.

Ikerketa eta berrikuntza sanitarioa (I+G+b)

Ziur gaude berrikuntza dela hobeto zaintzen jarraitzeko funtsezko tresna. Horregatik, aktiboki parte hartzen eta gidatzen ditugu osasun-arreta hobetzea, prozesuak optimizatzea eta osasun-sistemaren digitalizazioan aurrera egitea helburu duten adimen artifizialeko aplikazioen garapen-proiektuak.



Telerrehabilitazio gidatua

Gipuzkoako TRAK start-uparekin elkarlanean garatua, programa honek pazienteei beren etxetik ariketak egitea ahalbidetzen die, mugitu beharrik gabe eta jarraipen profesional pertsonalizatuarekin.



DISTRA

Adimen artifizialeko tresna, gaixotasun berriak aurreikusteko gai dena, pazientearen egungo patologiarekin arabera.



INURGE

Larrialdi-zerbitzuaren kudeaketa optimizatzeke adimen artifizial integratua duen tresna.



INURGE

Birsartze-tasak murrizteko adimen artifizialean oinarritutako sistema.



ORKESTA

Etxean bizi diren adineko pertsonentzako zaintza-eredu berritzailea.



POSTCIG

Kirurgia osteko konplikazioak prebenitzeko tresna integrala.

Egunero egiten dugun guztiaren isla

Txosten hau ez da zenbakien, lorpenen edo proiektuen bilduma soil bat. Guran konfiantza jartzen duten pertsonen alde egunero egiten dugun guztiaren isla da. Zenbaki bakoitzaren atzean izen-abizenak daude, gainditze-istorioak, talde-lana eta **bokazio partekatua: zaintzea**.

Asuncion Klinikako presidente gisa, **eskerrik beroenak adierazi nahi dizkiet erakunde honetako profesional guztiei**. Gurekin urteak daramatzaten pertsonen eta berriki batu direnei.

Lehen lerroan lan egiten dutenei eta, baita ere, ikusgarritasun txikiagoa duten baina ezinbesteko diren zerbitzuetatik erakundea sostengatzen dutenei. Eskerrik asko zuen eguneroko konpromisoagatik, profesionaltasunagatik, moldatzeko gaitasunagatik eta egoerarik zorrotzenetan ere onena emateko prest egoteagatik. Zuen lanik gabe, orri hauek jasotako aurrerapenak ez lirateke posible izango.

Osasun Sailarekin dugun kontzertua urtero bultzatzen gaitu geure burua gainditzera eta balioa sortzera

Aipamen berezia merezi dute gure pazientek. **Egunero beren osasuna zaintzeko gu aukeratzen duten pertsona guztiek**. Eskerrik asko lehen aldiz hurbiltzen direnei eta gure historiaren parte diren horiei. Eskerrik asko gure arreta errespetuzkoa, profesionala eta gertukoa dela sentitu duten eta hori beste batzuei gomendatzen dietenei. Esperientzia bakoitzak, partekatutako urrats bakoitzak, zentzua ematen dio gure eginkizunari.

Eta, bereziki, eskerrak eman nahi dizkiot Tolosaldeko biztanleriari guregan jartzen duen konfiantza etengabearengatik. **1967an sortu ginenetik, lurralde honekin batera hazi gara**, eta bertan errotuta jarraitzen dugu. Uzturre

ren magalean dugun kokapenak irudikatzen du gertutasunaren eta bikaintasunaren arteko oreka. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin dugun hitzarmenak urtero bultzatzen gaitu geure burua gainditzera eta balio-sorkuntzako motor izatera, ez bakarrik eskualderako, baita Gipuzkoako osasun-sistema osoarentzat ere.

Eskerrak eman nahi dizkiogu Osasun Sailari guregan jartzen duen konfiantzagatik. **Hitzarmen honek kalitatean zorrotz izatera behartzen gaitu, urtero arrakastaz gainditzen ditugun ikuskapen eta auditoria zorrotzek egiaztatzen dituzten bikaintasun-mailak lortuz**. Elkarrekiko lankidetzan eta laguntzan oinarritutako harreman honek indartsuago eta gaitasun handiagoko erakunde bihurtu gaitu, herritarren beharrei hobeto erantzuteko.

Osasun Sailarekin dugun kontzertua urtero bultzatzen gaitu geure burua gainditzera eta balioa sortzera.

Konpromiso hori etorkizunera ere begira dago. **Eraldaketaren eragile aktibo izan nahi dugu: adimen artifizialaren garapenak txertatuz, arreta eta prozesuak hobetzeko, iraunkortasunaren aldeko apustua eginez, berrikuntza arduratsua sustatuz, eta gure konpromiso soziala sendotuz**. Eta, batez ere, etorkizunean Asuncion Klinikaren gidaritzan noren esku egongo den axola gabe, berrikuntzaren espiritua, exigentzia-maila handia eta gaur egun definitzen gaituen gizatasuna bere horretan iraun dezan.

Dokumentu honek lortutakoa jasotzen du, baina baita izan nahi duguna islatzen ere: bikaintasun kliniko eta humanoarekin konprometitutako osasun-zentroa, aurrerapen kolektiboaren aldeko erakundea, eta pertsona arretaren erdigunean jartzen duen zaintza-modua defendatzen duena.



Dk Jesús Gomez Montoya

Neurozirurgia
Asuncion Klinikako presidente exekutiboa

